Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4724

EBAZPENA, 2009ko abuztuaren 4koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena; honen bidez, erakunde autonomo horretan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe uzten da.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2009ko ekainaren 10eko Ebazpenaren bitartez (2009ko uztailaren 2ko EHAA, 125. zk.), deialdi publikoa egin zen Osalaneko Zuzendaritza Orokorreko Plangintzako zuzendariorde plaza izendapen askez betetzeko. Bada, ebazpen horretako laugarren oinarrian eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.c) artikuluan (1989ko ekainaren 28ko EHAA) xedatutakoarekin bat etorriaz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Osalaneko Zuzendaritza Orokorreko Plangintzako zuzendariorde plaza (512006 kodea, 4. dotazioa) betetzeko deialdia hutsik uztea. Izan ere, aurkeztutako eskabideak aztertu eta baloratu ostean ondorioztatu da hautagaiek ez dituztela kargu horretarako ezaugarriak betetzen.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du; hortaz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Osalaneko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Barakaldo, 2009ko abuztuaren 4a.

OSALANeko zuzendari nagusia,
PILAR COLLANTES IBÁÑEZ.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

4724

RESOLUCIÓN de 4 de agosto de 2009, de la Directora General de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, por la que se declara desierta la convocataria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Organismo Autónomo.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV de 28 de julio de 1989) y en la base cuarta de la Resolución de 10 de junio de 2009, de la Directora General del Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales (Osalan) (BOPV n.º 125 de 2 de julio de 2009) por la que se anunciaba convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de Subdirector de Planificación de la Dirección General de Osalan,

RESUELVO:

Primero.– Declarar desierta la convocatoria de la plaza de Subdirector de Planificación de la Dirección General de Osalan, código 512006, dotación n.º 4, porque tras el examen y valoración de las solicitudes presentadas se deduce que ninguno/a de los candidatos/as reúne el perfil específico exigido para el desempeño del puesto.

Segundo.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Directora General de Osalan, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el BOPV, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a su publicación en el BOPV.

En Barakaldo, a 4 de agosto de 2009.

La Directora General de OSALAN,
PILAR COLLANTES IBÁÑEZ.